

**GIZARTE ZERBITZUETAKO EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)****2010-1-22ko BILKURAREN AKTA**

Bilkura Gasteizen (Seminario) egin da  
Zumarragako Tomas Dohatsua 67.-}-

**DEIALDIA EGIN DU:**

**Presidentea: Gemma Zabaleta Areta andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua.

**BERTARATUAK (GZEK-ko KIDEAK):**

**Fernando Fantova Azcoaga jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuordea (GZEK-ko jarduneko lehendakaria).

**Alfonso Gurpegui Ruiz jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

**Gloria Múgica Conde andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Berrikuntza Soziolaboraleko zuzendaria.

**Celina Pereda andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Droga Gaietako zuzendaria.

**Miguel González Martín jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Inmigrazioko zuzendaria.

**José Manuel Muñoz Dermit jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarteratze Zuzendaritzako teknikaria.

**Miren Amilibia Urcelay andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren aholkularia.

**María Luisa Garcia Gurrutxaga andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berritatzeko zuzendaria.

**Elena Elozegi Vallejo andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko teknikaria.

**Mariola Serrano Argüeso andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako zuzendaria.

**Ignacio Rodríguez Puertas jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren, Kultura, Gazteria eta Kiroletako Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintzako zuzendaria.

**Jesús A. Pérez Arrospide jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Kultura, Gazteria eta Kiroletako Saileko teknikaria.

**Cristina Madinabeitia andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismo Zuzendaritzako teknikaria.

**Koldo Hualde jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomiako zuzendaria.

**Begoña Zugadi andrea.**- EMAKUNDE.

**Oscar Seco jauna.**- EUDEL.

**Dorleta Goiburu andrea.**- EUDEL.

**Ricardo Barkala jauna.**- EUDEL.



**Iñigo Pombo jauna.**- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila.

**Juan Ramón Larrañaga jauna.**- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren Ezinduen Laguntzako zuzendari nagusia.

**Natalia Díez Caballero andrea.**- Euskadiko familia ugarien elkarteetako Federazioa (HIRUKIDE).

**Consuelo Ordejón Caballero andrea.**- EMAKUNDEren Aholku Batzordea.

**Juan Carlos Sola jauna.**- ELKARTEAN.

**Alberto Ponti jauna.**- Haurren eta Nerabeen Batzorde Iraunkorra.

**José Manuel Odriozola Azurmendi jauna.**- Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioa.

**Karmele Acedo Gil andrea.**- Euskadiko Lan Elkarten Kooperatiben Konfederazioa.

**Miguel Angel Ruiz jauna.**- Droga-mendetasunen esparruko erakundeak.

**Pedro Fernández García jauna.**- FEVAS.

**Mayte Díaz de Lezana andrea.**- Etorकिन Laguntzarako GKE-en Euskadiko Koordinakundea, "Harresiak Apurtuz".

**Juan Ibarretxe Karetxe jauna.**- EAPN Euskadi.

**Javier Domínguez Entenza jauna.**- ONCE.

**Gotzon Villaño Murga jauna.**- EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak.

**Jesus Otaño Maiza jauna.**- EAEko gizarte-hezitzaileen elkargoa.

**M<sup>a</sup> Jose Cano andrea.**- Gaixo Psikikoen eta haien Senideen Euskadiko Federazioa.

**Julene Gabiola Amallobieta andrea.**- ELA Sindikatua.

**Felisa Piedra andrea.**- CCOO Euskadi.

**Emilia Málaga andrea.**- UGT Euskadi.

**Amaia López Iriondo andrea.**- CONFEBASK.

**Adolfo Gonzalez Berruete jauna,** Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Zuzendaritzako teknikaria, ordezkari idazkari gisa jardunez.

#### **BESTE EUSKAL KONTSEILUETAKO KIDE BERTARATUAK (BOKAL EZ DIRENAK)**

**Oscar Vizarraga Muñoz jauna.**- (KALE DOR KAYIKO).- EAEko Ijito Herriaren Kontseiluko ordezkaria.

#### **BERTARATU EZ DIRENAK (GZEK-ko KIDEAK):**

**Gemma Zabaleta Areta andrea.**- Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua (GZEK-ko lehendakaria).

**Inés Ibáñez Maeztu andrea.**- Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Eskubideen zuzendaria.

**Ignacio de la Puerta Rueda jauna.**- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendaria.

**Amparo Maiztegi andrea,** Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.

**Bokal bat** EAEko Udalen ordezkari (EUDEL).

**Bokal bat** Eusko Legebiltzarreko ordezkari (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea).



**Bokal bat** LAB sindikatuaren ordezkari.

**Ana Ureta Basáñez andrea**, gay, lesbiana eta transexualen erakundeen ordezkaria (Aldarte Elkartea).

**Ane Abarrategui Zaitegi andrea**.- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.

.....

### **BILKURAREN AKTA**

Quorum nahikoa izanik, lehen deialdian Osoko Bilkura behar bezala eratu da, aurretik idazki bidez bidalitako deialdian adierazitako tokian eta egunean. Bilkura 2010eko urtarrilaren 22ko goizeko 9:00etan hasi da, lehendakariak finkaturiko honako gai-zerrenda honekin:

- 1.- 2009ko urriaren 30eko Osoko Bilkurari dagokion akta onartzea.
- 2.- Gizarte Zerbitzuetako Goi Ikuskaritza arautzen duen dekretuari buruzko nahitaezko txostena.
- 3.- Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoari buruzko oinarrien dokumentua aurkeztea.
- 4.- Euskadiko gizarte-zerbitzuen diagnostiko-dokumentua aurkeztea (Plan Estrategikoaren 1. atala).
- 5.- Adingabeen arrisku- eta babesgabetasun-egoeraren balioespenerako tresna arautzen duen dekretuari buruzko informazioa.
- 6.- Galde-eskeak.

.....

Lehendakaria ez denez bertaratu, Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren Osoko Bilkuraren mahaiburua Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako sailburuorde **Fernando Fantova** jauna da (Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren ekainaren 13ko 124/2006 dekretuaren 16.2 artikuluan xedaturikoa betez).

Bertaratu direnak agurtu eta ongietorria egin ondoren, gai-zerrendako puntuak lantzen hasi da.

#### **1. PUNTUA.- 2009ko URRIAREN 30eko OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA ONARTZEA.**

Aurreko bileraren akta aho batez onartu da.

#### **2. PUNTUA.- GIZARTE ZERBITZUEN GOI IKUSKARITZA ARAUTZEN DUEN DEKRETUARI BURUZKO NAHITAEZKO TXOSTENA.**

**Alfonso Gurpegui**: akats batzuk aurkitu dira iraganean bidali zen proiektuan. Akatsak jarraian emango den dokumentuan biltzen dira, eta horrekin batera dekretuaren zirriborroa aurkezten dugu, zuzendu ondoren (1. dokumentua).

**Juan Ramón Larrañaga** jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari lanetan, adierazi du ezin dutela txostenaren mende jarritako proiektua onartu, beste bi Aldundiek izenpetutako idazkian jasotako arrazoiengatik, eta, beraz, puntu hori gai-zerrendatik kentzeko eskatu da; idazkia akta honi erantsi zaio (2. dokumentua).



**Ricardo Barkala** jauna (Eudel) bat dator Foru Aldundiekin, dekretua kentzea egokia dela adieraztean, baina Eudelek ez du oraindik baterako jarrerarik hartu.

Euskadiko Gizarte Langileen Elkargo Ofizialeko **Gotzon Villaño Murga** jaunak proposatu du proiektuaren 9. artikulua aldatzea, titulazioko B taldeari ikuskatzaile-postuetara sartzeko aukera emateko (eta ez soilik A taldeari), hala gizarte-zerbitzuetako profesional garbienek zerbitzuetako maila guztietan parte hartzeko aukera izango luketelako, zerbitzu horien berezko egiturari buruz duten ezagutza emanez.

**Jesús Otaño Maiza** jauna, EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren ordezkari-lanetan, proposamen horri atxiki zaio.

**Mayte Diaz de Lezana** andreak (Harresiak Apurtuz) adierazi du, era berean, egokia izango litzatekeela proiektua erakundeen artean adostua izatea.

**Fernando Fantova**: legezko izapide guztiak bete dira, hainbat alegazio onartu dira, eta erakundeen arteko hiru bileren gai-zerrendan bildu da, eta adostasuna beti espero den arren, ezinezkoa izan da, eta prozedurarekin jarraitu behar da, Jaurlearitzak ezin dituelako bere erantzukizunak alde batera utzi.

**Iñigo Pombo** jaunak (Bizkaiko Foru Aldundia) ohartarazi du proiektuak ez duela beste goi-ikuskaritza batzuen eredia jarraitzen, hala nola hezkuntzako ikuskaritzaren eredia, aldundiek onartu zutena, erakundeak ikuskatuta eta ez zentroak, goi-ikuskaritzak nahitaez talka egingo duen ikuskaritza arruntaren jardun-eremuarekin gainjarriz, eta, are gehiago, aurreikusi da funtzionario horiek gizarte-zerbitzuen sistematik kanpoko zentroetan sartuko direla, gizarte-zerbitzuen Legean bertan xedaturikoa urratuz.

Ahalegin txiki bat eginez, dekretu horrek sortzen dituen arazo guztiak konpon daitezke.

**Txema Odriozola** (Euskadiko Erretiratuen Federazioa): Kezkagarria da, gizarte-zerbitzu gehienak aldundien eta udalen esku egonik, oso garrantzitsua den kapitulu honi buruzko adostasunik ez lortzea administrazio horien eta Jaurlearitzaren artean.

**Juan Ramón Larrañaga** (Gipuzkoako Foru Aldundia): Ez dute dekretua babestuko, adostasuna lortzeko lan nahikoa egin ez delako.

**Fernando Fantova**: Elkargoen ekarpenekin (jasotzen saiatuko dira), proiektuari buruzko informazioa jasotzat jo da.

### 3. PUNTUA.- ERABILTZAILEAREN EKARPEN EKONOMIKOARI BURUZKO OINARRIEN DOKUMENTUA AURKEZTEA.

**Alfonso Gurpegui**. Oinarrien dokumentu bat da, eta, beraz, bertan garatutako puntu bakoitzak hainbat aukera onartzen ditu, horien artean aukeratu behar izanik. Erakundeen eztabaida politikoa bilera batekin hasiko da, otsailean, eta aldi berean, elkarriketa zibila irekiko da. Hala ere, kasu honetan, egin nahi diren ekarpenak idazki bidez aurkeztu beharko dira.

**Emilia Málaga** (UGT). Bere alegazioak izango duen ibilbidea aurretik ezagutzen duen arren, adierazi nahi du azkenean onartzen dena beti desagokia izango dela, LGSarekiko (Lanbide arteko Gutxieneko Soldata) erreferentziari eusten bazaio.

**Txema Odriozola**: EAEAP (Efektu Anitzetako Errentako Adierazle Publikoa) ere aipatzen da, baina ez dakigu nola kalkulatu den.

**Juan Carlos Sola** (ELKARTEAN): Ezinduek beti oztopo sozial bat direla uste dute. Mendekotasunaren zerga ordaintzeaz gain, orain gizarte-zerbitzuen finantziazioan parte hartzea nahi da, eta hori beti bidegabekoa irudituko zaie.



**Julene Gabiola** (ELA): Erreferentzia-mailaren % 90eko aurreikusitako ekarpen-ehunekoa gehiegizkoa da egoitza-zerbitzuen kasuan. Ez daude ados diru-sarrera likidoak falta diren kasuetan ordezko formula gisa zorraren errekonozimendua erabiltzearekin.

Jakin nahi dute testuko zein puntu gaineratu diren estatuko oinarrizko legedikoak izateagatik, eta zein puntu onartu diren, beharrezkoa izan gabe. Ez dute ulertzen erabiltzailearen ondarea kalkulatzeko zergatik hartu diren kontuan ondasunak, eta zergatik ez kargak eta betebeharrak.

**Pedro Fernández García** (FEVAS): adimen-urritasunaren eremuan, doakotasuna ezinbesteko gaia da. Gai hori eztabaidatzeko hautatutako prozedura (elkarrizketa soilik erakundeekin) ez da egokiena.

**Fernando Fantova**: zorroaren Dekretuak, erabiltzailearen partaidetza ekonomikoak, plan estrategikoak, horren memoriak, eta hitzarmenak zehazten dute gizarte-zerbitzuen euskal sistema, nola hedatuko diren denboran, eta zein izango den horien kostua. Oso garrantzitsua da arlo horiei buruz ados jartzea aurrekontuak egin aurretik, bestela 2011. urtea berriz ere trantsizioko edo bitarteko urtea izango delako; hori da ezarri dugun erritmo bizkorraren arrazoia.

**Alfonso Gurpegui:**

- Prezio publikoaren % 90 da ekarpenarentzat aurreikusitako gehieneko kopurua, eta, beraz, administrazioaren gutxieneko ekarpena % 10 izango da beti.
- Zorraren errekonozimendua: eztabaidatzeko aukera ematen du.
- Eskumenak. Mendekotasunari buruzko legeak eskuragarriak ez diren gutxieneko batzuk ezartzen ditu, eta, beraz, zuzenean aplikagarriak dira, eta gutxieneko horien artean, ondasunen zenbaketa eta kargak eta betebeharrak alde batera uztea bildutzat jo behar dira.

#### **4. PUNTUA.- EUSKADIKO GIZARTE ZERBITZUEN DIAGNOSTIKO DOKUMENTUA AURKEZTEA (plan estrategikoaren 1. atala)**

**Alfonso Gurpegui:** Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren lantze-prozesuak entregatzeko lau zati ditu. Gaur eman den dokumentua seriearen lehena da, eta Eustaten 2007. urteko informazioa, sailaren estatistika-organoaren informazioa, eta Aldundien ekarpenak biltzen dira bertan.

**Txema Odriozola:** Irakurtzeko zaila da dokumentua, eta faltan botatzen dira gutxienez aurkibide bat eta orrialdeen zehaztapena.

Aurreko bileran jada egindako eskaera errepikatu du, hau da, adineko pertsonen egoerari buruzko azterlan bat egitea eta diagnostikoan txertatzea, bestela hankamotz geratuko baita beti.

**Elena Elósegui** (Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila): Aztertzen ari garen diagnostiko-dokumentua oso ondo osatuko lukeen dokumentu soziosanitario bat badugu jada.

**Iñigo Pombo.** Dokumentu soziosanitarioa kontseilu honetako kideek ezagutu eta informatu beharko lukete, betiere osasun sailean dagokion prozesua amaitu ondoren.

**Fernando Fantova.** Dokumentuak trukatzeko hasierako fase batean gaude, eta gero interesa duten eragile guztiei emango zaizkie.

**Pedro Fernández García:** Noiz izango ditugu adierazi diren gainerako dokumentuak?

**Alfonso Gurpegui:** Landa-azterlan baten bitartez adineko pertsonen egoera aztertzeke eskari bat egin da jada.



Era berean, eskatutako kronograma zehaztu du: martxoan planaren lehen dokumentua egina egongo da; apirilean edo maiatzean, memoria ekonomikoa, eta ekainean Mapa. Behin betiko dokumentuak ekainean edo uztailen egina egon beharko luke.

## **5. PUNTUA.- ADINGABEEN ARRISKU ETA BABESGABETASUN EGOERAREN BALIOESPENERAKO TRESNA ARAUTZEN DUEN DEKRETUARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

**Alfonso Gurpegui:** Modu laburrean azaldu du Osoko Bilkuran aurkeztutako txostenaren edukia. Bertan ondorioztatu da gizarte-zerbitzuetako arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna urtebeteko aldi borondatez ezartzea erabaki dela azkenean. Urte horretan, ikusten diren hutsuneak zuzenduko dira eta dagozkion hobekuntzak egingo dira. Urtea amaitu ondoren, eraginpeko administrazio guztiak tresna erabiltzera behartuko dituen dekretua emango da.

**Jesús Otaño Maiza** jaunak Eusko Jaurlaritza zoriondu du hartutako erabakiagatik.

## **6. PUNTUA.- GALDE-ESKEAK**

**Oscar Vizarraga Muñoz** jaunak (KALE DOR KAYIKO) diru-laguntzak berrantolatzeko dekretuari buruzko informazioa eta 2010erako egutegia eskatu du.

**Fernando Fantova:** modu laburrean azaldu du diru-laguntzen dekretu berria. Dekretu horrek aurretik emandako aginduen gehiegizko kopurua (hoge) murrizteko eta arrazionalizatzeko aukera emango du.

Gizarte-ekimenerako diru-laguntzen agindua hilabete honen 27an argitaratuko da, eta, ondoren (epe laburrean), udalei zuzendutako agindua emango da.

**Oscar Vizarraga Muñoz:** aurreko bilkuraren aktaren gorputzean bilerara bertaratutakoen artean aipatzen zaien arren, deseroso sentitu dira aktaren azken atalean bildutako koadro sinoptikoan ez agertzeagatik.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilera 2010eko urtarrilaren 22ko 10:15ean, eta idazkari naizen honek esandako guztiaren fede eman dut.

IDAZKARIA

OE.  
Jarduneko LEHENDAKARIA